

euskararen BERRIPAPERA

Ahoz aho, belaunez belaun

Itsaso eta Ibai dira, Eusko jaurlaritzako Kultura eta Hezkuntza, unibertsitate eta Ikerketa sailek batera antolatu duten Ahoz aho, belaunez belaun kanpainako maskotak. Aurki oso ezagunak izango dira euskal herritarren artean, herriz herri ibiliko baitira hezkuntzaren jarraipenerako bidetik nagusiarena eta berezkoena aldarrikatuz familian ere, euskaraz.

◆ Zer da Ahoz aho, belaunez belaun?

Kultura eta hizkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailek euskararen jarraipenera begira antolatu duten sentiberatze kanpaina da, apirilean martxan jarri eta legealdi osoan zehar herriz herri ibiliko dena. Ekimenaren helburuak hitz gutxitan adieraz daitezke: euskararen erabilera eta aldeko jarrerak sustatzea, belaunez belaun iraun dezan ziurtatzea eta eragile guztien arteko harremanak euskaraz izateko bideak bultzatzea. Hainbat ekitaldiz osaturiko kanpaina da eta gure hizkuntzaren errealitateaz

jabetzeko aukera eskaintzen du. Euskararen erabilera areagotzeko eta jarraipenera ziurtatzeko, guztion zeregina handia dela esatera dator: haurren eta gurasoen, ikasleen, eta irakasleen parte hartzea funtsezkoa dela berrestera datoz Itsaso eta Ibai.

◆ Nori zuzenduta?

Kanpainak haurren eragin nahi du, eskolaren bitartez, eta euskara erabiltzearen garrantzia nabararazi. Eragin nahi du, halaber, Gurasoengan eta gurasogaiengan, haurren

mundura hurbiltzeaz batera, gure hizkuntzan murgil daitezten.

Errealitate horretan bustiz, euskararen jarraipenerako dauden erarik bizienak erakutsiko dizkigute Itsasok eta Ibaik: eskola eta familia.

◆ Eta zer ikus daiteke?

Ikusi Bakarrik ez; ukitu, manipulatu, hitz egin hori guztia egiteko aukera eskaintzen duelako kanpainaren ardatz nagusia den erakusketo ibiltariak. Bisitaria bada, ez da ikusle hutsa izango: liburuz jantzitako makina erraldoiarekin hitz egin ahal izango du; telebista baten programazioan murgildu ahal izango du, gaur egungo irratsaioak eta irratsaio zaharrak entzun ahal izango ditu, komikiak irakurri, jolastu, abestu edo margotu... hori guztia eskainiko dio Itsaso eta Ibairen lagunarte berriak. Erakusketara Hurbilduko diren guraso eta gurasogaientzat, bestalde, kartilak eta 8 minutuko ikusentzunezko muntaia ere prestatu dira. Irudi eta soinuez lagunduta, kanpainako mezuak eta helburuak jakinaraziko zaizkie modu atseginean.

SUMARIOA

- 1 Ahoz aho, belaunez belaun
- 2 Laburrak
EKEn urratsak
Kontuan hartzeko
- 3 UNESCOren Ihardunaldiak
Euskaraz bizi
Deialdiak
- 4 Izen-abizenez
Lehen begiratuan
Zure lehenengo berba
euskaraz

Horiez landa, antzerkia, jaiak, etab. Egingo dira kanpainak bisitatuko dituen herrietan, gurasoek, haurrek edota irakasleek parte har dezaten.

◆ Non izango da kanpaina?

Euskal Herriko 10.000 biztanletik gorako herrietan. Horretarako, eskolak eta kultur etxeak erabili beharko dira, erakusketak eskatzen duen azpiegiturei ez baita Nolanahikoa! Kanpainaren estraineiko emanaldian apirilaren 22an izango da Andoainen. Hortik Aramaio, Mungia, Bergara, Arrasate... makina bat herritara joko du kanpainak eta bertan izango dira Itsaso eta Ibai.



LABURRAK

Urtero bezala, aurten ere antolatuko da. Madrilen EXPOLINGUA azoka. Ohiturari eutsiz, Chamartin tren geltokian jarriko dira erakusmahaiak apirilaren 18tik 21era arte. Nazioarteko hizkuntza gehien ordezkariak bildu ohi ditu EXPOLINGUAK eta, besteak beste, hainbat hitzaldi, mahainguru, aurkezpen eta mintegi izan ohi da bertan. Gainerakoekin batera, euskarak ere bere lekua izango du, Eusko Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren eta Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendaritza nagusiaren lankidetzari esker. Bertara hurbilduko den bisitariak euskarari buruzko informazio orokorra nahiz espezializatua jasotzeko aukera izango du.



Nolanahi ere, Madrilen ospatuko dena ez da euskarak hilabete honetan izango duen zita bakarra. Euskal Editoreen Elkarteak sustaturik, euskararen eta euskal kulturaren ordezkariarik ez da faltako BOLOGNAFIERA azokan. Bologna hiria haur eta gazteen liburugintzari buruzko nazioarteko topagune bihurtu ohi da urtero. Aurten apirilaren 11tik 14ra bitartean euskal argitaletxeak han izango dira, batetik, bere lanak ezagutzera emateko, eta bestetik, munduko joera berrien nondik norakoak ezagutu ahal izateko. Haur eta gazteentzako liburugintzaren arloan ezinbesteko erreferentzia den BOLOGNAFIERA azoka euskararen presentzia areagotzeko tresna garrantzitsua da eta, halaber, euskal editoreek galdu ezin duten aukera.

Euskal Kultur Erakundearen urratsak

Euskal Kultur Erakundea iparraldeko kultur elkarte eta eragile sozial gehientsuak biltzen dituen egitura da. EKE albiste iturri izan dugu azken bolada honetan, bi arrazoi direla medio. Batetik, erakundearen urteko biltzarra burutu berri delako eta, bestalde, Miarritzeko Udalarekin lortutako akordioak ate berriak zabaldu dizkiolako euskarari iparraldean. Euskararen bidea ez da samurra. Ipar Euskal Herrian eta, horregatik apika, sona handia izan du Euskal Kultur Erakundeak Miarritzen sinaturiko itunak, Lehen aldia da era horretako akordioa lortzen dela Iparraldeko hiri handi batean. Itunak euskararen erabilera sustatzeko eta jarraipena areagotzeko tresna garrantzitsuak hartu ditu abiapuntutzat. Batetik,

euskarazko haurtzaindegia sortzea aurriztatu da, haurrengan eragitea guztiz premiazkoa delako. Bestalde, Udalak akordioa izenpetuko du *Gau Eskolarekin* helduen euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko; horrekin batera, itzulpen zerbitzua sortuko da hiriko administrazioarentzat eta bide seinale elebidunei buruz ere, politika berria abiaraziko da. Akordioa sinatu izanak sortutako aldeko giro horretan, Euskal Kultur Erakundeak urteko biltzarra egin zuen martxoaren 16an, erakundea osatzen dute 171 kultur elkarte eta 141 herrietako

ordezkari gehienak bertan zirelarik. Ipar Euskal Herriko euskal kultura osasun egoera onean dagoela, baina arretaz zaindu beharra dagoela aldarrikatu zuten biltzarrean bildutakoek. Iazko iharduerari buruzko aipamenez gain, hurrengo urteari begira egin beharreko ez luze hitz egin zuten EKEko kideek. Biltzarrak halaber, Erramun Baxok berretsi zuen lehendakari postuan beste hiru urtetarako eta Txomin Heguy zuzendari lanetan segitu dezan.

**KONTUAN HARTZEKO****Euskara eta kirola ihardunaldiak**

Deba garaiko udaletako Euskara eta kirol zerbitzuek *Euskara eta kirola* ihardunaldiak antolatu dituzte hilaren 24rako, Eibarko Unibertsitate laboralean. Ihardunaldiak kirola euskalduntzeari begira orain arte egindakoaz eta etorkizuneko asmoez hausnarketa egiteko parada eskainiko dute. Eusko jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren ordezkariak parte hartuko dute.

Zinema euskaraz.

Euskal telebistak Zine Oro programaren barruan, bikoiztutako azken sei pelikulak eskainiko ditu apirilaren 28tik aurrera. Filmeotan hizkuntzari kontu berezia egin zaio eta ETBK ikas material gisa erabiltzea ere nahiko luke. Horretarako, liburuxka gidak argitaratu ditu filmei buruzko xehetasun nagusiak jasoz. Horrez gain, inkesta-orri bat ere banatuko du, ikusleak programaz duen iritzia ager dezan.



UNESCOK HIZKUNTZA GUTXIENGOTUEN ALDEKO POLITIKAK BABESTEN DITU

Leioan, martxoaren 11tik 14ra bitartean, hainbat herritako hizkuntza politikak aztertu ziren. *Linguapax* programaren barruan, Euskal Herriko UNESCOren Lagunek antolaturiko mintegiak helburu hauek zituen:

- Herri ezberdinetako hizkuntza politiketan irizpide edo ildo amankomunak adostea.
- Nazioarte mailan hizkuntza minorizatuen aldeko jarrerak bultzatzea.
- Lankidetzarako proiektu jakin batzuk aurrera ateratzea.

Helburuak horiek izanda, mintegiaren emaitzak ere hiru punturen inguruan bil daitezke:

- Lehenengo helburuarekin lotuta, oinarrizko agiria onestu zuten han bildutako adituek. Agirian bi alderdi azpimarratu ziren; batetik, hizkuntza politiketan oreka mantendu behar dela gizabanakoaren printzipioaren eta lurraldetasun printzipioaren artean,

beti ere, hizkuntza bakoitzaren egoera kontuan izanda. Eta bestetik, irakaskuntza hizkuntza politika oren ardatz dela, baina ez alderdi bakarra.

- Bestalde, Federico Mayor zaragozak, UNESCOren lehendakariak bere hitzaldian esan zuen bezala, munduan zeharreko hizkuntza aniztasuna babestea da UNESCOren asmoa, eta, horretarako, hizkuntz zen bilakaera aztertzea proposatu zuen, lan hori egiteko ardura *Linguapax* batzordearen esku utzi zelarik.
- Hirugarren helburua dela eta, hots, proiektu jakin batzuk aurrera ateratzeari dagokionez, Eusko jaurlaritzak Boliviako eta Kolonbiako gobernuekin elkarlanean iharduteko egitasmoaren lehen urratsak eman ditu, batez ere, irakasleak prestatu eta ikasmaterialak garatzeari begira.

DEIALDIAK

Urruzuno literatur lehiaketa

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa sailak Batxilergo eta lanbide Heziketarako ikasleei zuzenduriko Urruzuno literatur lehiaketarako deia egin du (EHAA 39 zenb.). Jatorriz euskaraz idatzitako literatur lan orijinalak aurkeztu ahal izango dira apirilaren 19ra arte, egun horretan amaitzen baita lanak entregatzeko epea. Prosa eta poesiako lanak onartuko dira, bertso paperak barne. Orotara, 20 sari banatuko dira eta sailak liburu bat organizatuko du saritutako lanak bilduz.

Gazteria eta gizarte ekintzak


Eusko jaurlaritzako Kultura Sailak Gazteria eta Gizarte Ekintzaren esparruko programak eta ekintzak garatzeko dirulaguntzak kaleratu ditu (EHAA 44 zenb.). Dirulaguntza hauekin lagundu nahi dira, bestek beste:

Euskal Autonomi Elkarteke gazteei zuzenduriko iharduerak, Gazteak helburutzat hartuta antolaturiko ekintzak, eta Gazteen elkartrukeak edo iharduera komunitarioak. Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 28an amaituko da.

Euskaraz bizi

Jadanik 27 kide biltzen ditu UEMAK, Udalerri Euskaldunen

Mankomunitateak. Guztiak euskaraz bizi eta funtzionatu nahi duten udalerriak dira eta horretarako, baterako egiturak sortu eta elkar laguntzeko moduak atondu dituzte. UEMA 1991an sortu zen euskaraz funtzionatzeko dauden oztopoak gainditzeari begira. Geroztik, Hego Euskal Herri osora zabandu da UEMA eta jadanik, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan du ordezkariarik. UEMAKo kide diren udalerrietan biztanleriak %80 inguru euskalduna da. Udalaren zereginetan euskara lanerako tresna izatea lortu nahi du UEMAK eta horretarako hainbat zerbitzu



berezi eskaintzen dizkie kideei. Horrez gain, herritarren artean euskararen presentzia areagotzea ere lehentasunezko helburua da.

Luis Larringan

Luis Larringan irakasleak *Testu Antolatzaileak Bi Testu Motatan: Testu Informatiboa eta Argudiapen Testua* izeneko doktorego tesia aurkeztu zuen urtarrilaren 22an. Epaimahaiak hala erabakita, *cum laude* goraipamena jaso du aurkeztutako lanak. Apatamonasterion (Bizkaia) jaio Zen Larringan duela 54 urte. Deustuko Unibertsitatean lizentziatu Zen Euskal Filologian eta, gaur egun, Linguistika

Orokorra irakasten du Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko Kanpusean. Itziar Idiazabal doktorearen zuzendaritzapean burutu du doktorego tesia Larringanek eta ondoko kideek osaturiko epaimahaiaren aurrean aurkeztu zuen: Patxi Goenaga mahaiburua, Jean Paul Bronckart, Beñat Oiharzabal, Karmele Rotaetxe eta Xabier Artiagoitia.

**Pauli Elosua**

Pauli Elosuaren *Froga Psikologikoen Euskaratzean Lortutiko Alborapenaren Araketa eta Baieztapena* izeneko doktorego tesiak ere, *cum laude* goraipamena jaso zuen. Lanaren aurkezpena otsailaren 16an izan Zen Psikologia Fakultatean. Elosua duela 31 urte sortu Zen Zumaian (Gipuzkoa); Euskal Herriko Unibertsitateko

Psikologia Fakultatean lizentziatua da eta, halaber, bertan ari da lanean gaur egun, irakasle gisa. Tesiaren zuzendaria Esther Torres izan du eta ondoko epaimahaiaren aurrean defenditu zuen bere lana: Jose Muñiz mahaiburua, Gerardo Prieto, Mari Carmen Viladrich, Julio Olea eta Roberto Ibarretxe.

**Zure lehenengo berba euskaraz**

Zure lehen berba euskaraz egiten duzunean, argibide asko eskaintzen diozu zure solaskideari. Lehen berba horrek, euskaraz egiten denean, garbiro azaltzen du zein duzun harremanetarako hizkuntza. Eta gutxi kostatzen bada ere, asko balio du.

Lehen hitz horren balioaz eta esanguraz jabeturik, Deba Garaiko eta Durangaldeko hainbat elkarte **Zure lehen berba euskaraz** izeneko kanpaina lantzen ari dira. Oraindik erabakitzeke dago noiz jarriko den martxan, baina proiektuaren zirriborroa jadanik, mahai gainean dago.

Oraingoz, talde horien zeregin nagusia kanpaina abiarazteko behar diren baliabideak zehaztean datza. Nolanahi ere, aurki izango dugu, zuei helarazteko moduan euskararen normalkuntzaren aldeko ekimen interesgarri honen berri zehatzagorik. Bitartean, badakizu: ahaleginak merezi duelako, zure lehen berba, euskaraz!

Lehen begiratuan

Maskaradarik gabeko ihauteri festarik ez da Zuberoan, eta aurten gainera, bi herrik antolaturiko ikuskizunetz gozatu ahal izan da: bata Muskildik eta bestea Mithikilek antolatua. Eskaria gero eta handiagoa delako, ohi baino saio gehiago egin behar izan dituzte Maskaradek; alabaina, parte hartzen dutenen nekeak ikusle goaren atseginerako izan direla zalantzarik ez dago. Maiatzaren 5ean izango da aurtengo azkena, Muskildikoak bere herritarren aurrean eskainiko duena.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

EUSKO JAURLARITZA**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

